


Musikaren iraultza

Aspaldion sarritan entzun dugu ezkerria joera politikoa gisa ia desagertu arte urtu dela. Iritziak dira, beste iritziak bezala gaurko bulimia informatiboaren itsas zakarrean joan-etorrian dabilzanak. Hala ere, honek edo bestek, ezkerria zerrien bazkaren pare dagoela adierazten du, eta, batek jakin zergatik, oihartzuna ematen zaio eta akaso kafearen orduan aldamenekoari esango diogu doinu aspertuan: “Ezkerrik ez omen dago, hala ote?”

“Merezita!” erantzungo dute batzuek, eta ez zaie arrazoirik faltako, segur aski. Baina ohartu orduko zazpietako buletinak esnatuko gaitu animalia baten griperekin, eta gure inguruko akordatu gara, eta noizbait zakarretan aurkitutako altzaria margotzeko erabili genuen maskarilaren bila hasiko gara —artearen orratzak kendu gabe— eta etxekoren bat agertuko da zertan ari garen galdetuz eta harri eta zur geratuko gara, geure jokamoldeaz jabetuta, eta, noski, ezkerri buruzko debate hura zeharo ahaztuta.

Garai batean gauzak zailago ziren, eta, beraz, sinpleago. Gosea honatago bizi zen, eta gosetuok taldea osatzen genuen eta harro ginen eta ezkerreko. Tokatzen zelako kasik. Baina muturreko klaseen artean tarteko klaseak azaltzen hasi orduko, elkartasun hura desagertu zen. Gelako pobreek pobre izaten segitu zuten, noski, baina gelako aberatsen ezaugarri batzuk hartu zituzten: Levi'sak, Nike txandalak, Nintendo jokagailu elektronikoak.

Ondoren, dirua merketu zen eta kredituak erraztu zituzten eta aberatsen janzkerak ez ezik, haien autoak erosten eta eskiatzeko forfaita ordaintzen hasi ginen. Uste izan genuen aberatsen unibertso hura ez zela horren arrotza, eta gonbidatu bakarrik ez, tematiak izanez gero bertakotu gintezkeela. Ametsa zen:



DANI BLANCO

Eider Rodriguez

Olasagarre

Agirre

penuriak eta gosea ahazturak irentsi zituen, urre koloreko azala eta zetazko eskuak izatea zen gure oraina. Eta orduan denok “higiezin” hitza ikasi genuen, eta hitzarekin batera, “higiezinekin” negozio txit oparoak egin zitezkeela, geure patrikak betetzeko, eta, bidenabar bes-tetzuenak husteko. Berandu zen gelditzeko.

Bitarte horretan, aberatsak ere egin zuten sartu-irtenik kontrako bandara, eta almidoi usaineko arropak baztertu eta ero-soago janzten hasi ziren, umilago, pobrea-go. Izan zen garai bat, non, gazte aberatsak, gazte ez hain aberatsekin zeudenean kontzertu batean edo fakultateko tabernan “ez daukat xentimorik!” esaten zuten, harro. Dirua izatea ez zegoelako modan aberatsentzat. Pobreaken rola jokatzaren luxu ezta dastatzen zuten (gauza bera gertatzen da neska eta mutil ederrekin: grano bat ateratzen zaien aldi bakanetan, itsusiaren rola jokatzera maite dute), muturren arteko espazioa lanbro erromantiko batek hartua zuen, eta alde batetik bestera jauzika ibiltzea zilegi zen, estetikaren mugetan barna, beti ere.

Bazirudien geure bizitokia aldatu egin zela, errotik. Ez genuen deus ulertzen eta informazioa pilulaka iristen zitzaigun, eta hura irensteko basoa urez bete aurretik beste pilula bat geneukan, beste kolore batekoa, akaso ezkerria desagertu zela esaten zuena, edo, beharbada, ezkerria berpiztuko zela iragartzen zuena.

Irakurri dut Patxi Lopezek *Sarri, Sarri* dantzatu zuela inoiz. Berak esana da, kampaian, harrotasunez aldarrikatua. Apaizek ere ardoa maite dutela aitortzen dute huma-

noago agertu aldera. Lopezek jator itxura izan nahi du, kaletar, humano, ezkertiar itxura, horregatik ere uzten du hazten txilibitua eta ez bibotea.

Kontrako bandara jauzi egitea guztiontzat delako ezti. ■

Patxi Lopezek jator itxura izan nahi du, kaletar, humano, ezkertiar itxura, horregatik ere uzten du hazten txilibitua eta ez bibotea